



Itziar ELIZONDO IRIARTE
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Txip eta txat

Pantaila zuriaren aurrean zutabearen hasierari nola heldu erabaki ezinik, googlera jo eta, azken boladan ohi denez, berriro ere ChatGPT-i buruzko artikulu batekin egin dut topo.

Gogaikarri dabil algoritmo mada-rikatua, ondo baino hobeto baitaki han hemenka nabilela komunikazio, marketin eta idazketarekin lotutako saltsetan.

Tira bada, zeure atzaparretan nauzu azkenean, atentzioaren lapur halakoa.

Aplikazioa ireki aurretik, baina, amesgaizto distopiko moduko bat dabilkit burmuinean barrena. Nik ez dut horren inguruan interes handirik izan, ez dut inon klikatu, eta beraz, cookiek ez diote algoritmoari informaziorik bidali. Gai da izaki informatiko hori jakiteko nik horren berri izan nahi dudala nik neuk erabaki aurretik? Reset egin pentsamenduari, arrazionaltasun txipean jarri eta neure buruari esan diot, ez bada, dena probabilitate kontua izango da. Eta pixka bat lasaitu naiz, baina ez gehiegi.

Horregatik, kontua ireki eta GPTkin txateatzen hasi aurretik, badaezpada ere, «adimen artifiziala euskaraz» idatzi dut bilatzailean. Bertan *berezuma.com* helbidean Beñat Erezumak sortutako edukiak ikus daitetzke, tartean adimen artifizialarekin egindako podcast bat. Webguneko bideoetan azalpen ugari daude teknologia horren erabilpenari buruz. GPT eredu bat da hizkuntza iragartzeko; txateatzen diozu zer nahi duzun (azalpen zehatz bat, gomendio bat, are istorio bat) eta zitzu bizian erantzungo dizu. Aplikazioaren sortzaileek erabat asmatu dute datuak eta informazioa



Adimen artifizialak oraindik ez daki ondo euskaraz: edukiak behar ditu ikasteko. GAUR8

txat moduan erakutsiz, gizakiok el-karrizketekin harrapatuta baikaude. Horrez gain, burmuin erraldoi horrek guk baino hamaika milioi datu gehiago dituenek, elkarrizketaren ondorioz ateratzen den testuaren "originaltasuna" guk egiten dizkiogun galderetan datza. Zeren eta, sortutako testua fintzeko, behin eta berriaz galdetu beharko diogu hark idatzitakoari.

Burmuina ez dago behar bezala entrenatuta gure hizkuntzan, gutxi irakurri duelako oraindik euskaraz, eta horren ondorioz, euskara kaskarrean erantzuten du. «Zer behar du ChatGPTk hobeto idazteko euskaraz?», galdetu diot.

«Euskarazko testu estilo eta genero desberdinetatik jasotako informazioa izan behar du, horretan entrenatuta egon ahal izateko», erantzun du.

Inteligentzia artifiziala trebeagoa izan dadin euskaraz datu dosi gehiago behar ditu. Datu iturriak batik bat sarean dauden edukietatik hartzen dituenek (wikipedia, liburu elektronikoak eta testu literarioak, albiste eta aldizkarietako artikulua, web orriak eta blogak, sare soziale-tako iruzkinak eta abar), txipa hone-tan jarri behar da: etorkizunak euskaraz hitz egin dezan, pertsonok eta inteligentzia artifizialak egun dauden baino askoz ere testu gehiago behar ditugu sarean. •